I. HOBARIDUN KONTSUMORAKO KREDITUARI BURUZKO INFORMAZIO NORMALIZATUA

Letra "lodiz" nabarmendutako informazioak bereziki garrantzitsuak dira, Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrean aurreikusitakoaren arabera.

DATU PERTSONALAK:

Bezeroak

Titularrak

Zure datu pertsonalak

Lehen abizena:	Bigarren abizena:
Izena:	IFZ:

Zure egoitza

Zerga egoitza:	
Posta-kodea:	Telefono zenbakia:

1. MAILEGU-EMAILEAREN NORTASUNA ETA HAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO XEHETASUNAK

Banku mailegu-emailea:	BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A.
Helbidea:	San Nikolas plazatxoa, 4 - 48005 BILBO.
Telefono zenbakia:	900 102 801
Web-orriaren helbidea:	www.bbva.es

2. KREDITU-PRODUKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIEN DESKRIBAPENA

Kreditu mota	Berme pertsonala eta interes tasa finkoa duen mailegua.
Kredituaren guztizko zenbatekoa Hau da, kontsumitzailearen eskura, kreditu kontratuaren esparruan, eskura jarritako zenbateko guztien gehieneko zenbatekoa edo haien batura.	**Zenbatekoa, gehieneko zenbatekoa banaka esleituko da bezero bakoitzarentzat, 3.000 €-tik 75.000 €-ra arte.**
Funtsen erabilera arautzen duten baldintzak Hau da, kontsumitzaileak noiz eta nola lortuko duen dirua	Berehala izango duzu eskatutako zenbatekoa kontuan diru-sarrera eginez.
Kreditu kontratuaren iraupena	**Gehieneko epea banaka esleituko da bezero bakoitzarentzat, 24 hilabetetik gehienez 96 hilabetera arte.**
Epeak eta, hala dagokionean, epekako ordainketak egingo diren hurrenkera.	Kapital eta interes kuota kalkulatuko da 2024/01/31n formalizatutako mailegu batentzat adierazitako zenbateko eta eperako: - Adibidea: 10.000 € 96 hilabetetan %7,80ean, nomina helbideratzen baduzu; kapitalaren eta interesen kuota 140,35 €-koa izango da bakoitza. Nomina helbideratzen baduzu, %8,80ean 145,47 €-ko 96 kuota izango dira.

Mod.: CS IP GENERIKOA V.14 2017-11-26

Ordaindu beharko duzun zenbateko guztia Hau da, maileguan hartutako kapitalaren zenbatekoa gehi interesak eta haren kredituarekin lotuta egon daitezkeen gastuak.	**Hona hemen zenbateko eta eperako ordaindu beharko duzun guztizko zenbatekoa:** **- 14.194,62 €, nomina helbideratzen ez baduzu.** **- 13.703,96 €, nomina helbideratzen baduzu.**

* Dokumentu honetan adierazitako datuak "Datuen kalkuluko data" epigrafean adierazitako datan daude kalkulatuta.

3. KREDITUAREN KOSTUAK

Tasa zorduna	**Interes tasari hobaria aplikatzen bazaio edo ez, hau izango da aurreko adibiderako tasa zorduna:** **- %8,80eko urteko interes-tasa nominal finkoa, nomina ez baduzu helbideratzen.** **- %7,80eko urteko interes-tasa nominal finkoa, nomina helbideratzen baduzu.** **Dena den, BBVAk azken urteko interes-tasa nominal hori aplikatuko dizu mailegua indarrean jartzen den datatik 2024/03/31ra arte, nahiz eta nomina helbideratu gabe izan. Data hori igarota, urteko interes-tasa nominala izango da hurrenez hurreneko sei hileko bakoitzaren epemugan betetzen diren hobari baldintzen arabera dagokiona, mailegua indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.**
Urteko tasa baliokidea (UTB) UTBa da kredituaren kostu osoa, kredituaren zenbateko osoaren urteko ehunekoan adierazita. Eskaintza desberdinak konparatzeko erabiltzen da UTBa.	**Balizko UTBak honako hipotesi hauen arabera kalkulatu dira: kontratua indarrean egongo dela bere iraupen osoan, aldeek beren betebeharrak beteko dituztela adostutako baldintza eta epeetan, maileguaren zenbateko osoa erabili dela eta hobariak aplika daitezkeela kontratatutako interes tasaren arabera.** **Adibidea:** **Helbideratutako nominarekin:** **ITN finkoa: %7,80; UTBa: %8,78** **Maileguaren zenbatekoa: 10.000 euro, 2024/01/31n formalizatuta.** **Hileko kuota: 140,35 €.** **Epea: 96 hilabete.** **Irekitze komisioa: maileguaren zenbatekoaren %2,30: 230 €.** **Zordundutako zenbateko osoa: 13.703,96 €.** **Helbideratutako nominarik gabe:** **ITN finkoa: %8,80; UTBa: %9,88** **Maileguaren zenbatekoa: 10.000 €, 2024/01/31n formalizatuta.** **Hileko kuota: 145,47 €.** **Epea: 96 hilabete.** **Irekitze komisioa: maileguaren zenbatekoaren %2,30: 230 €.** **Zordundutako zenbateko osoa: 14.194,62 €.**

Mod.: CS IP GENERIKOA V.14 2017-11-26

Hobari aplikagarriak	**Interes-tasa nominalean aplikagarria den hobari hau izango duzu:** **a. Mota horretako interes-tasa nominalak (ITN) hobaria izango du, portzentajezko 1,0000 puntuko murrizketarekin, zuk edo gainontzeko kontratatzaileetako edozeinek, bat baino gehiago izango balira, BBVAn hauetako bat helbideratuta izango balute irekitako kontu korronte batean:** **• seiehun euro (600,00 euro) edo gehiagoko hileko zenbateko garbiko nomina bat,** **• hirurehun euro (300,00 euro) edo gehiagoko hileko zenbateko garbiko pentsio bat, edo** **• langabezia saria jasotzen duzu.** **Hobaria jaso ahal izateko, helbideratu egin behar duzu nomina, pentsioa edo sorospena zure BBVA kontuan banku transferentzia bidez zuzenean aginduta enpresari edo erakunde ordaintzailearen aldetik.** **Baldintza hauek bete behar dituzu, BBVAk murrizketak aplika ditzan:** **- Helbideraturik izatea interesaren hileko likidazio epealdi bakoitzaren epemugan.** **- Maileguaren ordainketan egunean egotea BBVAk egiaztatzen duenean seihileko bakoitzean hobarien baldintzak betetzen direla.** **Horretarako, kasu hauetan ulertuko da ordainketa guztiak eginda dauzkazula:** **a) Seihilekoan ez baduzu kuota bi aldiz ordaindu gabe utzi (une horretan ordainduta egon ala ez);** **b) Seihilekoan ez baduzu kuota 10 egun baino gehiago ordaindu gabe utzi (une horretan ordainduta egon ala ez);** **c) Seihilekoaren azken kuota ordaintzeko ez baduzu.** **Maileguaren formalizazioak ez dakarkizue ez BBVAri ez zuri erlazionatutako produktu edo zerbitzu guztiak edo haietako bat kontratatzeko betebeharra.**
Kreditua (eskainitako baldintzetan) lortzeko derrigorrezkoa al da kreditua bermatuko duen aseguru poliza edo beste zerbitzu osagarriren bat kontratatzea? Zerbitzu horien kostuak ez badira mailegu-emailearen ezagunak ez dira barne hartuko UTBan.	**EZ** **BBVAn kontu korronte bat duten eta bertan maileguaren ordainketak helbidera ditzaketen BBVAren bezeroentzat da mailegua. Kontratu espezifikoan agertzen da haren kostua.**
Erlazionatutako kostuak	Irekitze komisioa: % 2,30 xedapen bakoitzaren zenbatekoaren gain, gutxienez 0,00 euro.

Notarioaren derrigorrezko ordainsariak	Informazio gisa, hona hemen notarioaren muga-zerga ofizialak: Sei hilabete gainditzen ez dituen epemuga duten eragiketetan 1.000ko 1 izango da, eragiketaren zenbatekoaren gain, eta alderdi kontratatzaile bakoitzetik kobratuko da. 1. Sei hilabete gainditzen ez dituen epemuga duten maileguetan 1.000ko 1 izango da (%0,1), eragiketaren zenbatekoaren gain, eta alderdi kontratatzaile bakoitzak kobratuko du. 2. Sei hilabete gainditzen ez dituen epemuga duten eragiketetan 1.000ko 1,50 izango da (%0,15), eragiketaren zenbatekoaren gain, eta alderdi kontratatzaile bakoitzak kobratuko du. 3. Aipatutako muga-zergan ezarritakoari kalterik egin gabe, zure kontura izango dira hobariak.
Kostuak atzeratutako ordainketetan Ordainketak ez egiteak ondorio larriak eragin ditzake (adibidez ordaintzeko dagoen zenbateko osoaren nahitaezko salmenta eta epemuga aurreratua) eta zaildu egin dezake kreditua lortzea.	**Hau ordaindu beharko duzu atzeratutako ordainketengatik:** - **Urteko interes nominalaren baliokidea den interes tasa gehi bi puntu.** - **30,00 €, posizio zordunen erreklamazioen gastu gisa: BBVAk mailegu-emaileari jakinaraziko dio kuotaren bat ez badu ordaindu, honako bitarteko hauen bidez: BBVAren app-a, www.bbva.es webgunea, posta elektronikoa, telefono mugikorrera igorritako mezua, posta arrunteko edozein jakinarazpen, telefono bidez, gure bulegoek edo BBVAko kolaboratzaileek egindako gestioen bidez. Ordaintzeko dauden kuotak ordaindu beharra gogoraraziko dizu bankuak, zuri kalte ekonomikoa saihesteko.** **Bankuak mailegu-hartzaileari kobratuko dio "Baldintzak" atalean azaltzen den Zorpeko Posizioak Erreklamatzeagatiko Gastua, aipatu gestio horiengatik konpentsazio modura. Gastua behin bakarrik kobratuko du, salbo berri bakoitza erreklamatzen egindako gestioengatik.**

4. BESTE ALDERDI JURIDIKO GARRANTZITSU BATZUK

Atzera egiteko eskubidea Kreditu-kontratuan atzera egiteko eskubidea duzu 14 egun naturaleko epean	**BAI**

Aldez aurretiko itzulketa Kreditua erabat edo partzialki eta edozein unetan aldez aurretik itzultzeko eskubidea duzu.	**Hauetako bat aukera dezakezu gainontzeko zorrerako:** **a. Maileguaren epea murriztea eta aldizkako kuota bera mantentzea.** **b. Aldizkako kuota murriztea eta epe bera mantentzea.** **Amortizazio planak gainontzekoak baino handiagoa den azken kuota kontuan hartuko balu, amortizazio partzialak aplikatuko dira ordaintzeke dauden kuoten zenbatekoaren gainean.** **Amortizazio partzialak ez du aldatuko azken kuotaren zenbatekoa, guztizko kuoten kopurua eta maileguaren epea.** **Aldez aurretik kitatuz gero, irekitze-komisioaren zati proportzionala itzultzeko eskubidea izango duzu. Itzuli beharreko zati proportzional hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da guztira ordaintzeko dagoenetik amortizatutako zenbatekoa, eta jarraian adierazten bi moduetako batez egingo da, maileguaren ezaugarrien arabera:** **- Hileko kuota konstanteak dituzten eta %0 baino interes-tasa handiagoa duten maileguetarako: Aldez aurreko ezeztatzearen ondorioz maileguaren hasieran itundutako interesen guztizko zenbatekoaren gainean ordaindu beharreko interes txikiagoen portzentajea irekitze komisioari itzuli beharreko zatia kalkulatzeko aplikatzen zaion ehuneko bera izango da, ordaintzeko zegoenetik kitatutako zenbatekoaren portzentajeaz gain.** **- Gainerako maileguetarako: Itzuli beharreko portzentajea hauxe izango da: ezeztatze-datatik kontratuarentzat hitzartutako mugaegunera arte dagoen epearen eta ordaintzeko dagoen zenbatekoaren gainean ezeztatutako zenbatekoaren arteko zati proportzionala.**
Mailegu-emaileak eskubidea du konpentsazio-rako aurrez itzuliz gero	**Aurrez itzulitako maileguaren zenbatekoaren %1 izan beharko du gehienez komisio horrek, urtebete baino gehiago geratzen denean mailegua amaitzeko. Bestalde, aurrez itzulitako maile-guaren zenbatekoaren %0,5 izango da gehienez komisioa, urte-bete baino gutxiago geratzen denean mailegua amaitzeko.** **Aurrez itzultzeagatiko kalte-ordainaz gain, Bankuak bezeroari 11,50 euro ordaintzea eska diezaioke. Zenbateko hori mailegua-ren aurretiazko ezeztatzeak Bankuari sortzen dizkion adminis-trazio gastuengatik da.**
Kreditu kontratuko ereduaren proiekturako eskubidea. **Aurretik eskatuta, kreditu kontratuaren proiektuko kopia bat doan lortzeko eskubidea duzu.** Xedapen hau ez da aplikatuko eskaera egiten denean mailegu-emailea ez badago kreditu kontratua zurekin gauzatzeko prest.	**BAI**

Datu-base baten kontsulta. **BBVAk berehala eta emaitzaren kargurik gabe jakinarazi behar dizu datu-base bateko kontsulta bat, baldin kreditu-eskaerari mota horretako kontsulta batean oinarrituta uko egiten bazaio. Hori ez da aplikatzen informazio hori zabaltzea lege batek edo Europar Batasuneko Zuzenbideak debekatzen badu edo ordena publikoko edo segurtasun publikoko helburuen aurkakoa bada.**	**Kreditu-arriskua aztertzeko prozesuan kaudimen ekonomikoari eta kreditu-arriskuei buruzko fitxategiak kontsultatzen badira eta eskaera baztertzen bada, Bankuak kontsulta horren berri emango dizu.**
Epealdi horretan mailegu-emailea lotuta dago kontratu aurreko informazioagatik.	**BBVAk entregatzen dizun egunerako bakarrik izango da baliozkoa informazio hori.**

5. INFORMAZIO GEHIGARRIA, FINANTZA ZERBITZUAK URRUTITIK MERKATURATUZ GERO

a) Mailegu-emaileari buruzkoa • Helbidea: • Telefono zenbakia: • Fax zenbakia: • Web-orriaren helbidea: • Erregistroa: • Ikuskatze-agintaritza:	 San Nikolas plazatxoa 4, 48005 BILBO 900 102 801 www.bbva.es Bizkaiko Merkataritza Erregistroa- 2.083 tomoa, 1. folioa, BI-17-A orria, 1035. inskripzioa. Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.
b) Kreditu kontratuari dagokionez • **Uko egiteko eskubidearen erabilpena.**	**Kontratu honetan atzera egin dezakezu, sinatzen denetik 14 egun naturaleko epean, inolako arrazoirik eman beharrik gabe eta zigorrik gabe.** **Epea kontratua sinatzen den egunean hasiko da.** **Dena den, ez bazenitu jasoko kontratu baldintzak eta dagokion kontratu informazioa aipatutako egunaren aurretik, aipatutako informazioa jasotzen duzun egunean hasiko da zenbatzen eskubide hori erabiltzeko epea.** **Horretarako, idatziz jakinarazi beharko duzu, adierazitako epean, eta mailegua kontratatzen duzun BBVA bulegoaren helbidera.** **Zuk BBVAri ordaindu behar diozu kredituaren xedapen data eta kapitalaren itzultze dataren artean aipatutako kapitalaren gain pilatutako kapitala eta interesa, uko egiteko jakinarazpenaren bidalketatik 30 egun naturaleko gehieneko epean.** **Adostutako interes tasa zordunaren oinarriaren gain zordundutako interesak kalkulatuko ditu BBVAk.**
• Mailegu-emaileak, kreditu kontratua gauzatu baino lehen, zuekin harremanak ezartzeko oinarri gisa onartzen dituen legeak.	Kontratua gauzatu aurreko harremanetarako, Espainiako legeria aplikatuko da.
• Kreditu kontratuari eta auzitegi eskudunari dagokienez oinarritzat hartu beharreko lege aplikagarrien inguruko klausula.	Espainiako legeria aplikatuko zaie kontratuari eta hartatik eratorritako erlazioei

• **Hizkuntza araubidea.**	**Gaztelaniaz emango dira kontratuaren informazioa eta baldintzak.** **Kreditu kontratuak irauten duen bitartean gaztelaniaz komunikatuko gara zurekin.**
c) Errekurtsoari buruz • Prozedurak eta erabilgarritasuna	BBVAk zure eskura jartzen du Bezeroaren Arretarako Zerbitzu bat, eta horra zuzen zaitezke edozein kexa edo erreklamazio aurkezteko: Servicio de Atención al Cliente Apartado de correos 1598. 28080 Madrid Helbide elektronikoa: servicioatencion-cliente@bbva.com Doako telefonoa: 900812679 Halaber, bezeroaren defendatzailearengana jo dezakezu, BBVAren edozein bulegotan eta www.bbva.es-en eskuragarri dagoen prozeduraren arabera. Oficina del Defensor del Cliente. Apartado de Correos 14460. 28080 Madrid. Helbide elektronikoa: defensordelcliente@bbva.com Erantzuna ez balitz izango gogobetekoa edo bi hilabeteko epea igaroko balitz zure idatzia aurkeztu eta erantzunik jaso gabe, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura zuzendu ahal izango zara (Calle Alcalá 48, 28014 Madrid). BBVA ez dago atxikita kontsumoko batzorde arbitral batera kontratu honekin erlazionatutako gatazken ebazpenerako.
Posta gastuak:	Bankuak aldizka bidaliko dizu zure helbidera zure maileguaren kuoten informazio xehatua. Bidalketa horretarako tarifak une bakoitzean ezarriko dira Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos SAren bidez, eta helbide honetan kontsulta ditzakezu: http://www.correos.es. Eskuragarri duzu informazio hori doan bbva.es-en, alta eginez "Posta birtuala" atalean.

Dokumentu horren hasieran adierazitako finantza-produktuari buruzko informazio normalizatu honek ez dakar bankuaren ematea, ezta horren objektuari dagokion eskaintza loteslerik.

Mod.: CS IP GENERIKOA V.14 2017-11-26

OSO GARRANTZITSUA.

NAHITAEZKOA DA BBVAREN BULEGOAREKIN KONTSULTATZEA EDOZEIN GAI EDO ARGIBIDE, ETA, ZALANTZARIK IZANEZ GERO, PRODUKTUAREN EDO ZERBITZUAREN KONTRATURIK EZ SINATZEA.

Bankuak, eskatzailearen/eskatzaileengandik jasotako behar eta egoera finantzarioari buruzko adierazpena jarraituz, kontratu horren aurretiazko izaerarekin eman egin du nahikoa informazio eskainitako produktu desberdinei buruz ulertu ahal izan ditzazun horien ezaugarriak eta erabaki ahal izan dezazun zure interesentzat egokiena den kontratazioaren inguruan.

Halaber, Bankuak jakinarazi egin dizu bere edozein bulegotan eta web-orrian kontsulta dezakezula (www.bbva.es), eta baita Espainiako Bankuarenean ere (www.bde.es) BBVA eta bere bezero diren pertsona fisikoen artean azken hiru hilekoan ohikoenak izan diren komisio eta interes-tasei buruzko informazioa.

Produktu/zerbitzu horren kontratazio-prozesuan, bankuak ez dizu eman banku-gaietan aholkularitza zerbitzurik, eta ondorioz, ez du jaulki pertsonalizatutako gomendiorik zure ondasun egoeran oinarrituz eta kontratu honek erreferentzia egiten dion produktu/zerbitzuari dagokionez, eta ez dizu hori aurkeztu zure profilerako egoki gisa, eta hori aitortu eta onartu egiten du/te eskatzaileak/ek.

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.
p.p
Alderdi eskatzaileek dokumentu hau jasotzen dute, haren goiburuan adierazitako datan, bertan ezarritako baldintzen arabera.

Mod.: CS IP GENERIKOA V.14 2017-11-26